



EBAZPENA, 2008ko urtarrilaren 14koa, Hizkuntza Politikarako sailburuordearena, Terminologiako Batzorde-atal Bereziaren kideak izendatzeko.

Euskararen Aholku Batzordearen urriaren 16ko 176/2007 Dekretuak euskararen alorrean administrazioaren aholkulari den organo horren araubide juridikoa finkatzen du eta, besteak beste, horren osaera zehazten du.

Horrela, 176/2007 Dekretuaren hemeretzigarren artikulua Terminologiako Batzorde-atal Bereziaren osaera arautzen du. Horren arabera, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak izendatuko ditu dekretuaren 19.1 artikuluko d), eta e) idazatietan aipatzen diren kideak, eta Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoko kideekin batera utziko dute kargua, haien kargualdia bukatzean.

Ondorioz, hauxe

EBATZI DUT:

Lehenengo artikulua.- Terminologiako Batzorde-atal Bereziaren kideen izendapena egitea.

Hauk dira 176/2007 Dekretuaren 19.2. artikuluan aurreikusitakoaren arabera izendaturiko kideak:

- Araceli Diaz de Lezana Fernandez de Gamarra andrea, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako ordezkaria.
- Mertxe Olaizola Maiz andrea, IVAPEko ordezkaria.
- Ibon Olaziregi Salaberria jauna, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Euskara Zerbitzuaren ordezkaria.
- Andoni Sagarna Izagirre jauna, Euskaltzaindiko ordezkaria.
- Iker Etxebeste Zubizarreta jauna, UZEIko ordezkaria.
- Xabier Alberdi Larizgoitia jauna, EHUKo Euskara Institutuko ordezkaria.

Hizkuntza Politikarako sailburuordeak euskararen eta terminologiaren arloan ospe aitortua duten pertsonen artean izendatutako kideak:



- Gexan Alfaro Mutuberria jauna.
- Alberto Atxabal Rada jauna.
- Joseba Erkizia Itoitz jauna.
- Miel Loinaz Beristain jauna.
- Asier Larrinaga Larrazabal jauna.
- Alfontso Mujika Etxeberria jauna.

Bigarren artikulua.- Ebazpen honek izenpetzen den unetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko urtarrilaren 14a.

Hizkuntza Politikarako sailburua,
Patxi Baztanika Galparsoro